

# Aurreztearen alde ona

*Aurreztearen zentzua oso modu erraz eta entretenigarrian azaltzen da.*

-

Aurrezteak gauza on asko ditu, eta ez guk esaten dugulako, baizik eta adituek, psikologoek.

## AURREZTEAREN ALDE ONA

### GEHIAGO BALORATZEN DITUZU GAUZAK

Aurreztuz, dirua irabazteak nolako balioa duen ikasten duzu. Horrela, hobeto ulertuko dituzu gurasoak!

### ARDURAZ KONTSUMITZEN DUZU

Txikitatik aurrezteko helburu bat badugu, nagusitan informatuagoak, lasaiagoak eta planifikatuagoak izango gara.

### ONDO PENTSATUTA EGITEN DITUZU GAUZAK

Nik, adibidez, bizikleta di-da erosi beharrean, denbora bat izan nuen aurrezteko eta pentsatzeko. Eta, azkenean, tableta erosi nuen!



### HELBURUAK MOTIBATU EGITEN ZAITU

Aurrezteko helburu bat baduzu, dirua ez gastatzeko motibazioa izango duzu. Sariak merezi du!

### ERANTZUKIZUNA GARATZEN DUZU

Dirua nola administratu erabakitzen duzunean, baliabideak erabiltzeko bide gero eta egokiagoak hartzen ikasten duzu.

### ZERBAIT BEREZIA EGITEN DUZU

Etorkizunean, nahikoa aurreztutakoan, zerbait berezia erosteko erabili ahal izango dugu.

